

**BEHEKOSOLOA XXI, SMP**

**EGOERA BALANTZE LABURTUA 2022KO ABUZTUAREN 31n ETA 2021EKO ABENDUAREN 31n**

| <b><u>AKTIBOA</u></b>                                                             | <b>2022</b>        | <b>2021</b>        | <b><u>ONDARE GARBIA ETA PASIBOA</u></b>                                          | <b>2022</b>        | <b>2021</b>        |
|-----------------------------------------------------------------------------------|--------------------|--------------------|----------------------------------------------------------------------------------|--------------------|--------------------|
|                                                                                   | <b><u>Euro</u></b> | <b><u>Euro</u></b> |                                                                                  | <b><u>Euro</u></b> | <b><u>Euro</u></b> |
| <b>AKTIBO EZ KORRONTEA:</b>                                                       |                    |                    | <b>ONDARE GARBIA:</b>                                                            |                    |                    |
| <b>Ibilgetu ukiezina</b>                                                          | 384                | 538                | <b>Funts propioak (11. oharra)</b>                                               |                    |                    |
| <b>Ibilgetu materiala (5. oharra)</b>                                             |                    |                    | <b>Kapital eskrituratua</b>                                                      | 90.000             | 90.000             |
|                                                                                   |                    |                    | <b>Erretserbak</b>                                                               | 1.711              |                    |
| Lursailak eta eraikuntzak                                                         | 43.449             | 42.768             | <b>Aurreko ekitaldietako emaitzak</b>                                            |                    | (4.513)            |
| Instalazio teknikoak eta beste ibilgetu mat                                       | 80.026             | 68.657             | <b>Ekitaldiko emaitza</b>                                                        | 268                | 6.224              |
| <b>Aktibo Ez Korrontea Guztira</b>                                                | <b>123.860</b>     | <b>111.964</b>     | <b>Ondare Garbia Guztira</b>                                                     | <b>91.978</b>      | <b>91.711</b>      |
| <b>AKTIBO KORRONTEA:</b>                                                          |                    |                    |                                                                                  |                    |                    |
| <b>Izakinak (7. oharra)</b>                                                       | <b>33.161</b>      | <b>23.103</b>      |                                                                                  |                    |                    |
| <b>Merkataritza zordunak eta kobratu beharreko beste kontu batzuk (6. oharra)</b> |                    |                    | <b>PASIBO KORRONTEA:</b>                                                         |                    |                    |
| Salment. eta zerb. emateagatiko bezeroak                                          | (2.495)            | (117.715)          | <b>Merkat. hartzekod. eta ordaindu beharreko beste kontu batzuk (12. oharra)</b> |                    |                    |
| Beste zordun batzuk                                                               | 70.446             | (9.775)            | Hornitzaileak                                                                    | 68.330             | 101.993            |
|                                                                                   | <b>67.952</b>      | <b>(127.490)</b>   | Beste hartzekodun batzuk                                                         | 67.892             | (160.266)          |
| <b>Epe laburreko periodifikazioak (9. oharra)</b>                                 | <b>81</b>          | <b>2.326</b>       |                                                                                  | <b>136.223</b>     | <b>(58.273)</b>    |
| <b>Esku dirua eta beste aktibo lidiko baliokide batzuk (10. oharra)</b>           |                    |                    | <b>Epe laburreko periodifikazioak (14. oharra)</b>                               |                    | 18.679             |
| Altxortegia                                                                       | <b>3.149</b>       | <b>42.213</b>      | <b>Pasibo Korrontea Guztira</b>                                                  | <b>136.223</b>     | <b>(39.594)</b>    |
| <b>Aktibo Korrontea Guztira</b>                                                   | <b>104.341</b>     | <b>(59.848)</b>    | <b>ONDARE GARBIA ETA PASIBOA GUZTIRA</b>                                         | <b>228.201</b>     | <b>52.116</b>      |
| <b>AKTIBOA GUZTIRA</b>                                                            | <b>228.201</b>     | <b>52.116</b>      |                                                                                  |                    |                    |

Txosten laburtu erantsian sartutako 1etik 16rako oharrak 2022ko abuztuaren 31ko egoera balantzearen zati dira.

Loiu, 2022ko azaroaren 24an  
**Behekosoloa XXI SM Pertsona bakarrekoa**

**Idoia Iruretagoyena Valle And.**

## BEHEKOSOLOA XXI, SMP

### 2022KO ABUZTUAREN 31N ETA 2021EKO ABENDUAREN 31N AMAITUTAKO EKITALDIARI DAGOKION GALEREN ETA IRABAZIEN KONTU LABURTUA

|                                                             | <u>2022</u><br><u>Euro</u> | <u>2021</u><br><u>Euro</u> |
|-------------------------------------------------------------|----------------------------|----------------------------|
| <b>ERAGIKETA JARRAITUAK:</b>                                |                            |                            |
| Negoio zifraren zenbateko garbia                            |                            |                            |
| Salmentak                                                   | 4.894                      | 17.815                     |
| Zerbitzuak ematea                                           | 520.462                    | 577.649                    |
|                                                             | 525.356                    | 595.463                    |
| Hornidurak (17. oharra)                                     | (153.362)                  | (202.441)                  |
| Beste ustiapen sarrera batzuk                               |                            |                            |
| Sarrera osagarriak eta kudeaketa arruntagatiko beste batzuk | 15.333                     | 12.434                     |
| Ekitaldiko emaitzari atxikitako ustiapen                    |                            |                            |
| diru laguntzak                                              | 6.673                      | 41.780                     |
|                                                             | 22.006                     | 54.214                     |
| Langileen gastuak-                                          |                            |                            |
| Soldatak, lansariak eta parekatuak                          | (95.074)                   | (128.999)                  |
| Gizarte kargak                                              | (30.064)                   | (38.856)                   |
|                                                             | (125.138)                  | (167.854)                  |
| Beste ustiapen gastu batzuk                                 |                            |                            |
| Kanpoko zerbitzuak (15. oharra)                             | (255.621)                  | (259.020)                  |
| Zergak                                                      | (530)                      |                            |
|                                                             | (256.152)                  | (259.020)                  |
| Ibilgetuaren amortizazioa (5. oharra)                       | (9.766)                    | (12.169)                   |
| Finantza tresnak besterentzeagatiko narriadura eta emaitza  | 2.521                      | 3                          |
| <b>USTIAPEN EMAITZA</b>                                     | <b>5.466</b>               | <b>8.196</b>               |
| Finantza interesak                                          |                            |                            |
| Finantza gastuak                                            |                            |                            |
| <b>FINANTZA EMAITZA</b>                                     | (146)                      | (7)                        |
| <b>EMAITZA ZERGEN AURRETIK</b>                              | <b>5.320</b>               | <b>8.189</b>               |
| Etekinen gaineko zergak                                     | (5.052)                    | (1.965)                    |
| <b>ERAGIKETA JARRITUETATIK DATORREN EKITALDIAREN</b>        | <b>268</b>                 | <b>6.224</b>               |
| <b>EMAITZA</b>                                              |                            |                            |
| <b>EKITALDIAREN EMAITZA</b>                                 | <b>268</b>                 | <b>6.224</b>               |

Txosten laburtu erantsian sartutako 1etik 16rako oharrek 2022ko abuztuaren 31n amaitutako urteko ekialdiari dagokion galeren eta irabazien kontuko zati dira.

Loiu, 2022ko azaroaren 24an

**Behekosoloa XXI SM Pertsona Bakarrekoa**

**Idoia Iruretagoiena Valle And.**

*(Administratzaile bakarra ordezkatzeko duen pertsona fisikoa)*

**BEHEKOSOLOA XXI, SMP**

**2022KO ABUZTUAREN 31N ETA 2021EKO ABENDUAREN 31N AMAITUTAKO URTEKO EKITALDIARI DAGOZKION  
ONDARE GARBIA EGONDAKO ALDAKETEN EGOERA LABURTUA**

**A) 2022KO ABUZTUAREN 31N ETA 2021EKO ABENDUAREN 31N AMAITUTAKO URTEKO EKITALDIEI DAGOZKIEN  
SARREREN ETA GASTUEN EGOERA AITORTUAK**

|                                          | Euro       |              |
|------------------------------------------|------------|--------------|
|                                          | 2022       | 2021         |
| Galeren eta irabazkien kontuen emaitzak  | 268        | 6.224        |
| Aitortutako sarrerak eta gastuak guztira | <u>268</u> | <u>6.224</u> |

**B) 2022KO ABUZTUAREN 31N ETA 2021EKO ABENDUAREN 31N AMAITUTAKO URTEKO EKITALDIARI DAGOZKION  
ONDARE GARBIA EGONDAKO ALDAKETEN EGOERA LABURTUA GUZTIRA**

|                                              | Euro                    |              |                                                            |                                      |                         |               |
|----------------------------------------------|-------------------------|--------------|------------------------------------------------------------|--------------------------------------|-------------------------|---------------|
|                                              | Kapital<br>Eskrituratua | Erretserbak  | Aurreko<br>beste ekitaldi<br>batzuen emaitza<br>negatiboak | Bazkideen<br>beste ekarpen<br>batzuk | Ekitaldiaren<br>emaitza | Guztira       |
| <b>2020ko abenduaren 31ko saldoa</b>         | 90.000                  | -            | (16.709)                                                   | -                                    | 12.196                  | 85.487        |
| Aitortutako sarrerak eta gastuak guztira     | -                       | -            | -                                                          | -                                    | -                       | -             |
| Bazkideekin edo jabeekin egindako eragiketak | -                       | -            | -                                                          | -                                    | -                       | -             |
| Ondare garbiaren beste aldaketa batzuk       | -                       | -            | -                                                          | -                                    | -                       | -             |
| 2020ko ekitaldiaren emaitzaren banaketa      | -                       | -            | 12.196                                                     | -                                    | -                       | 12.196        |
|                                              | <u>-</u>                | <u>-</u>     | <u>12.196</u>                                              | <u>-</u>                             | <u>-</u>                | <u>12.196</u> |
| <b>2021eko abenduaren 31ko saldoa</b>        | 90.000                  | -            | (4.513)                                                    | -                                    | 6.224                   | 91.711        |
| Aitortutako sarrerak eta gastuak guztira     | -                       | -            | -                                                          | -                                    | -                       | -             |
| Bazkideekin edo jabeekin egindako eragiketak | -                       | -            | -                                                          | -                                    | -                       | -             |
| Ondare garbiaren beste aldaketa batzuk       | -                       | -            | -                                                          | -                                    | -                       | -             |
| 2021eko ekitaldiaren emaitzaren banaketa     | -                       | 1.711        | 4.513                                                      | -                                    | -                       | 6.224         |
|                                              | <u>-</u>                | <u>1.711</u> | <u>4.513</u>                                               | <u>-</u>                             | <u>-</u>                | <u>6.224</u>  |
| <b>2022ko abuztuaren 31ko saldoa</b>         | 90.000                  | 1.711        | -                                                          | -                                    | 268                     | 91.978        |

Loiu, 2022ko azaroaren 24an

**Behekosoloa XXI SM Pertsona Bakarrekia**

**Idoia Iruretagoiena Valle And.**

*(Administratzaile bakarra ordezkatzeko duen pertsona fisikoa)*

## **BEHEKOSOLOA XXI, SM PERTSONA BAKARREKOA**

### **2022KO ABUZTUAREN 31N AMAITUTAKO URTEKO EKITALDIARI DAGOKION**

#### **TXOSTEN LABURTUA**

##### **(1) Sozietatearen jarduera**

BEHEKOSOLOA XXI, SMP 2001eko ekainaren 18an eratu zen eta bere xede soziala kirol, kultura, jolas, ostalaritza eta hartzaindegiko jarduerak burutzea da:

- a) Orotariko kirol jarduerak eta ekitaldiak antolatzea, burutzea eta sustatzea, orotariko kirolak irakastea eta egitea edo kirol horiek egiteko materiala, oinetakoak, jantziak, tresnak eta beste salerostea barne.
- b) Orotariko kultura, jolas, aisia eta denbora-pasa jarduera eta ekitaldiak, bidaia antolatuak eta irtenaldiak antolatzea, burutzea eta sustatzea.
- c) Tabernaren, kafetegiaren eta jatetxearen negozioa ustiatzea, salmentak, erosketak, horniketa, orotariko janariak, edariak eta elikadura produktu kontsumigarriak prestatzea.
- d) Hartzaindegiko jarduerak burutzea.

Sozietatearen egoitza sozial eta fiskala Loiu dago, Goitiko Anzubiaga bidea, z/g, Bizkaia.

12. oharrean adierazi bezala, Sozietatearen akzio guztiak egoitza soziala Loiu (Bizkaia) duen Lauro Ikastola Kooperatiba Sozietate Mugatuaren esku daude eta, beraz, kide bakarreko Sozietatea da. Sozietate Anonimoen Legearen Testu Eraberritua aldatzen duen Erantzukizun Mugatuko Sozietateei buruzko martxoaren 23ko 2/1995 Legearen bigarren xedapen gehigarriaren arabera, Sozietateak izaera horrekin eman du izena Merkataritza Erregistroan.

Ildo horretan, urtero Sozietateak aipatutako Bazkide Bakarrarekin errentamendu eragile kontratua sinatzen du. Kontratuaren bidez, Bazkide Bakarrak, urteroko kanonaren truke, kirol instalazioak Sozietateari uzten dizkio, honek ustia ditzan.

Beraz, honekin batera doazen 2022ko ekitaldiko urteko kontuetan kontabilizatu diren zenbatekoak Sozietatearen eta Bazkide Bakarraren arteko harreman esparruan interpretatu behar dira.

Balantza zordunak eta hartzekodunak nahiz taldeko enpresekin burututako transakzioak, txosten honen 12. oharrean jasota daude.

Lauro Ikastola Kooperatiba Sozietate Mugatuaren (Bazkide Bakarra) Zuzendaritza Kontseiluak, 2022ko azaroan, 2022ko abuztuaren 31n amaitutako ekitaldiko urteko kontuak formulatu ditu. Aurreko ekitaldiko kontuak 2022ko ekainean onartuak izan dira eta Euskadiko kooperatiba erregistroan daude.

2022ko ekainak 23ko batzorde orokorrean estatutuetako 27.artikuluaren aldaketa onartu zen. Orain urteko jarduera urtarilaren 1ean hasiko da eta hurrengo urtearen abuztuak 31an amaitu egingo da.

Urteko kontuak eurotan daude, hori baita Sozietatearen funtzio eta aurkezpen moneta.

## **(2) Urteko kontuen aurkezpen oinarriak**

### **2.1 *Irudi zehatza-***

2022ko ekitaldiko urteko kontu laburtuak Sozietatearen kontabilitate erregistroetatik hartu dira. Urte kontu horiek Sozietatearen Administrazioaile Bakarrak formulatu ditu, indarrean dauden legeetan jasota dauden eta oro har onartzen diren kontabilitate printzipioak aplikatuta, 2022ko abuztuaren 31n Sozietateak zituen ondasunen eta egoera finantzarioaren, zein data horretan amaitutako ekitaldiari dagozkion eragiketek eta ondasun garbien aldaketek izan zituzten emaitzen irudi zehatza adierazteko.

Urteko kontu horiek Bazkide Bakarrak onartzeko daude. Hala ere, Sozietatearen Administrazioaile Bakarrak ez du aurreikusten berrespen prozesuan aldaketa nabarmenik egongo denik.

### **2.2 *Kontabilitate printzipioak-***

2022ko ekitaldiko urteko kontu laburtuak egiteko, Merkataritza Kodea, Europar Batasuneko Araudien oinarritutako Nazioarteko Bateratzea lortzeko uztailaren 4ko Kontabilitate Alorreko Merkataritza Legeriaren Erreforma eta Egokitzapenerako 16/2007 Legea, abenduaren 16ko 1514/2007 Errege Dekretuan onartutako Kontabilitate Plan Orokorra eta, nagusiki, 4. Oharrean azaldutako erregistro eta balioespen arauak izan dira kontuan. Ez dago eragin adierazgarria duen eta urteko kontu hauetan aplikatu ez den derrigorrezko kontabilitate printzipiorik. Halaber, derrigorrezkoak ez diren kontabilitate printzipioak ez dira ezarri.

### **2.3 *Balioespenaren alderdi kritikoak eta Ziurgabetasunaren balioespena-***

#### ***Kontabilitate estimazio adierazgarriak eta hipotesiak-***

Urteko kontuak prestatzean, beharrezkoa da kontabilitate estimazioak egitea Sozietatearen Zuzendaritzak kontabilitate politikak ezartzeko prozesuan iritzia ematea eta estimazioak eta hipotesiak egitea, kontuetan jasotako zenbait aktibo, pasibo, diru-sarrera, xahupen eta konpromiso kuantifikatzeko. Hipotesiak iraganeko esperientzietan eta uneko egoeran zentzuzkoak diren beste aldagai batzuetan oinarrituta daude.

Estimazio horiek data bakoitzean eskuragarri dagoen aztertutako datuei buruzko informazio egokiena baliatuta egin badira ere, litekeena da datozen ekitaldietan estimazioak (goraka ala beheraka) aldatzea eskatuko duten gertaerak izatea. Hala balitz, aldaketak prospekzioa eginda ezarriko dira.

### **2.4 *Garrantzia erlatiboa-***

Txosten honetan finantza egoeren sailei edo beste gai batzuei buruzko zer informazio xehatu behar den erabakitzeko, Sozietateak, Kontabilitate Plan Orokorren Kontzeptu Esparruaren arabera, 2022ko ekitaldiko urteko kontuei lotutako garrantzia erlatiboa izan du kontuan.

## 2.5 Informazioa alderatzea-

Urteko kontuek, egoera balantzeko kontu sail bakoitzarekin, hainbat datu aurkezten dituzte, alderatu ahal izateko; galera eta irabazien kontua, ondare garbiaren aldaketa egoerarena, eskudiruen eta memoriaren fluxuen egoerarena, 2021eko ekitaldiaren datuena eta aurreko ekitaldiari dagozkion datuena. Era berean, 2022ko ekitaldiari dagokion txostenean bildutako informazioa 2021eko ekitaldiko informazioarekin alderatzeko aurkezten da. 2022ko ekitaldian kontutan hartu dira urtarrilak 1etik abuztuak 31 arteko kontuak, eta 2021ean urtarrilak 1etik abenduko 31ra arte.

### (3) Emaitzak aplikatzea

2022ko abuztuaren 31n amaitutako ekitaldirako irabazien banaketa-proposamena, Sozietatearen Administrazioaileek egin eta Batzar Nagusiak onartu dezan aurkeztuko dena:

|                                                      | <u>Euro</u>          |
|------------------------------------------------------|----------------------|
| Zerga ordaindu aurreko emaitza                       | 352,37               |
| Mozkinen gaineko zerga                               | 84,59                |
| <b>Ekitaldiko emaitza 2022</b>                       | <b><u>267,78</u></b> |
| <u>Banaketarako oinarria</u>                         |                      |
| Ekitaldiko emaitza                                   | <b>267,78</b>        |
| <u>Banaketa edo aplikazioa</u>                       |                      |
| Aurreko ekitaldiko emaitza negatiboak konpentsatzera |                      |
| Nahitaezko erreserba Funtsera                        | 35,24                |
| Borondatezko erreserba Funtsera                      | 232,54               |
|                                                      | <b><u>267,78</u></b> |

2021eko abenduaren 31n amaitutako ekitaldirako irabazien banaketa-proposamena, Sozietatearen Administrazioaileek egin eta Batzar Nagusiak onartua:

|                                                      | <u>Euro</u>         |
|------------------------------------------------------|---------------------|
| Zerga ordaindu aurreko emaitza                       | 8.189               |
| Mozkinen gaineko zerga                               | 1.965               |
| <b>Ekitaldiko emaitza 2021</b>                       | <b><u>6.224</u></b> |
| <u>Banaketarako oinarria</u>                         |                     |
| Ekitaldiko emaitza                                   | <b>6.224</b>        |
| <u>Banaketa edo aplikazioa</u>                       |                     |
| Aurreko ekitaldiko emaitza negatiboak konpentsatzera | 4.513               |
| Nahitaezko erreserba Funtsera                        | 819                 |
| Borondatezko erreserba Funtsera                      | 892                 |
|                                                      | <b><u>6.224</u></b> |

Kapital Sozietateen Legearen (27. artikuluan) eta Behekosoloko Estatutu Sozialen arabera, soberakinak ekitaldi bakoitzeko soberakin garbitzat hartuko dira, ordaindu beharreko zergak ordaindu eta gero eta esleitutako zenbatekoak kendu ondoren, hala badagokio aurreko ekitaldietako galerak konpentsatzeko. Gero ekitaldiko etekinaren % 10a gutxienez Lege Erreserbara bideratuko da, Sozietatearen kapital sozialaren %20a gehienez.

Lege-erreserbaren zuzkidura egin ondoren, gainerako soberakinak borondatezko erreserbetara edo dibidenduak banatzera bideratu ahal izango dira.

Horrela, soberakin gordinetik sozietateen gaineko zergaren %24 kentzen da soberakin garbira heltzeko, gero balantzearen "Ondare garbia" kapitulutik "Aurreko ekitaldietako emaitzak" kendu eta legezko erreserbarako %10a aplikatzen da soberakin gordinetik. Eta azkenik, gainerakoa borondatezko erreserba gisa enpresan gordeko da.

#### (4) **Erregistro eta balioespen arauak**

Ondoren, 2022ko ekitaldiko urteko kontuak prestatzeko erabili diren erregistro eta balioespen arau nagusiak laburbiltzen dira:

##### ***a) Ibilgetu materiala-***

Ibilgetu materialari dagozkion ondasunak, lehenik, erosketa prezioan edo ekoizpen kostuan oinarrituta balioztatzen dira eta, ondoren, kostu garbietan, dagokion amortizazio metatuan eta hondatzeagatik balizko galeretan oinarrituta balioztatzen dira.

Ibilgetu materialaren ondasunen berritze, zabaltze edo hobetze kostuak ondasunaren balio handiena gisa eranstean zaizkio aktiboari, ondasunaren ahalmena edo produktibitatea areagotzea zein erabilgarritasun aldia luzatzea eragiten duten heinean; ondorioz, ordezkaturako edo berritutako elementuak kontabilitatetik aterako dira.

Aktiboen erabilera hobetzen eta erabilgarritasun aldia luzatzen ez duten mantentze, zaintze eta konponketa kostuak emaitzei eranstean zaizkie, gertatzen diren ekitaldiaren kostu gisa, irabazkin printzipioan oinarrituta.

Sozietateak metodo linealaren arabera amortizatzen du ibilgetu ukiezina: erosketa kostua, ken hondar balioa, zati aurreikusitako erabilgarritasun urteak, ondorengo ehunekoen arabera:

##### **Ehunekoa**

|                      |      |
|----------------------|------|
| Jabetza industrialak | % 20 |
| Aplikazioak          | % 20 |

Sozietateak metodo linealaren arabera amortizatzen du ibilgetu materiala: erosketa kostua, ken hondar balioa, zati aurreikusitako erabilgarritasun urteak, ondorengo ehunekoen arabera:

##### **Ehunekoa**

|                                 |       |
|---------------------------------|-------|
| Eraikuntzak                     | % 2,5 |
| Makineria                       | % 10  |
| Beste instalazio batzuk         | % 10  |
| Informazioa prozesatzeko ekipak | % 20  |

Sozietateak, ekitaldi bakoitzaren amaieran, ibilgetu materialaren hondar-balioa, erabilgarritasun aldia eta amortizazio metodoa berrikusten ditu. Hasieran ezarritako irizpideen aldaketak, gertatuz gero, estimazio aldaketatzat jotzen dira.

Ibilgetu materialaren amortizazioaren kontzeptuagatiko 2022ko ekitaldiko irabazien eta galeren kontuaren zordunketa 9.766 eurokoa izan zen (5. Oharra).

Sozietatearen Administrazioaile Bakarraren arabera, aktiboen kontabilitate balioak ez du aktiboen balio berreskuragarria gainditzen. Balio berreskuragarria 4.c. oharreko azalpenean oinarrituta kalkulatzen da. Halaber, aktibo horiek hondatzeak eragiten dituen galerak eta, egongo balira, aurreko ekitaldietan hondatzeak eragindako galeren berreskuratzea aztertzeko irizpideak 4.b. oharrean deskribatzen dira.

**b) *Ibilgetu ukiezinaren eta materialaren balioa hondatzea-***

Sozietateak, gutxienez ekitaldi bakoitzaren amaieran, ibilgetu ukiezinaren eta materialaren balioan hondatzeagatiko galeren zantzuak dauden ebaluatzen du, galerok aktibo horien balio berreskuragarria liburuetan duten balioaren azpitik murrizten badu. Zantzurik izanez gero, aktiboaren balio berreskuragarria balioztatzen da, hondatzeagatiko balizko balio galera zenbatekoa den zehazteko. Aktiboak beste aktibo batzuekin edo beste aktibo multzo batzuekin loturarik ez duten esku diru fluxuak eragiten ez baditu, Sozietateak aktiboari dagokion unitate diru-sortzailearen balio berreskuragarria kalkulatzen du.

2022ko ekitaldian Sozietateak ez ditu ibilgetu materialaren eta ukiezinaren hondatzeagatiko galerak izan.

**c) *Errentamenduak-***

Errentamenduak errentamendu finantzario gisa sailkatzen dira, baldin eta, errentamendu horien baldintzen arabera, kontratuko aktiboaren jabetzari dagozkion arriskuak eta etekinak funtsean errenta hartzaileari transferitzen bazaizkio. Gainerako errentamenduak errentamendu eraginkor gisa sailkatzen dira.

Errentamendu eraginkorrak akordioei lotutako kostuak gertatutako ekitaldiko galeren eta irabazien kontuan zorduntzen dira.

**d) *Finantza tresnak-***

Finantza tresna enpresa batean finantza aktiboa eta, batera, beste enpresa batean finantza pasiboa edo ondare tresna eragiten duen kontratua da.

Finantza tresnak, hasierako aitorpenean, finantza aktibo gisa, finantza pasibo gisa edo enpresaren ondare tresna gisa sailkatzen dira, kontratu akordioaren funts ekonomikoan eta finantza aktiboaren, finantza pasiboaren edo ondare tresnaren definizioetan oinarrituta.

Finantza tresnak Sozietatea kontratuaren edo negozio juridikoaren derrigorrezko parte bihurtzen denean aitortzen dira, kontratuaren xedapenetan oinarrituta.

## **Finantza aktiboak**

- ***Sailkapena eta balioespena-***

Sozietatearen finantza aktiboak sail hauetan banatuta daude:

- ***Maileguak eta kobratzeko kontu sailak:***

Ondasunen salmentak edo enpresaren trafiko eragiketengatiko zerbitzuek eragindako finantza aktiboak (merkataritza eragiketengatiko kredituek), edo merkataritza jatorririk izan gabe ere, ondare tresnak nahiz eratorriak ez direnak, kobrantza zenbateko zehatzak eta zehaztu daitezkeenak dituztenak eta merkatu aktiboetan negoziatzen ez direnak (merkataritzakoak ez diren eragiketengatiko kredituak).

Hasieran finantza aktibo horiek arrazoizko balioa kontuan hartuta erregistratzen dira. Besterik adierazi ezean, arrazoizko balioa transakzioaren prezioa da, hau da, emandako kontraprestazioa, gehi zuzenean egotz dakizkiokeen transakzio kostuak. Ondoren, aktibo horiek amortizatutako kostua kontutan hartuta balioztatzen dira. Sortutako interesak galeren eta irabazien kontuan kontabilizatzen dira, interes tasa eraginkorraren metodoa ezarrita.

Hala ere, urtebeteko epea gaingitzen ez duten, kontratuaren arabeko interes tasa ez duten eta zenbatekoa epe laburrean jasotzea aurreikusten den merkataritza eragiketengatiko kredituak (eta langileei emandako aurrerakinak eta kredituak, kobratzeko dauden dibidenduak zein ondare tresnen gaineko derrigorrezko ordainketak) balio izendatuaren arabera balioztatzen dira, esku diru fluxuak ez eguneratzeak eragin nabarmenik ez duenean.

Sozietateak, gutxienez ekitaldiaren amaieran, beharrezko balioespen zuzenketak egiteko irizpidea du, hasierako onarpenaren ondorengo gertaeren ondorioz kreditu baten balioa aldatu izanaren froga objektiboak daudenean eta gertaera horiek aurreikusitako etorkizuneko esku diru fluxuak murriztea edo atzeratzea eragiten dutenean, esaterako, zordunaren kaudimen ezak eraginda. Kasu horretan, hondatzeagatiko balio galeraren zenbatekoa finantza aktiboak liburuetan duen balioaren eta hasierako onarpenean kalkulaturako interes tasa eraginkorrari kendu zaizkion aurreikusitako etorkizuneko esku diru fluxuen egungo balioaren arteko aldea da.

Hondatzeagatiko balioespen zuzenketak eta ondorengo gertaera batek galeraren zenbatekoa murrizten duenean eragiten den lehengoratzeari irabazien eta galeren kontuko xahupen edo sarreratzat jotzen dira. Hondatzearen lehengoratzearen muga balioaren hondatzeagatiko galera aintzat hartu izan ez balitz aktiboek liburuan izango luketen balioa da.

- ***Finantza aktiboaren baja-***

Sozietateak finantza aktiboari baja ematen die epea amaitzean edo dagokion finantza aktiboaren diru fluxuen gaineko eskubideak ematen eta jabetzari dagozkion arriskuak eta etekinak funtsean transferitu direnean.

Finantza aktiboari baja ematean, egotz dakizkiokeen jasotako transakzio kostuen kontraprestazio garbiaren (lortutako edozein aktibo berri, ken hartutako edozein pasibo berri) eta liburuetan aktiboak duen balioaren arteko aldeak, zuzenean ondare garbian onartu den edozein zenbateko metatu gehituta, aktibo horri baja ematean eragindako irabazia edo galera zehazten du eta baja gertatzen den ekitaldiaren emaitzaren parte da.

Aitzitik, Sozietateak ez die finantza aktiboari baja egiten eta jasotako kontraprestazioaren zenbateko bera duen finantza pasiboa onartzen du, jabetzari dagozkion arriskuak eta etekinak funtsean atxikitzen dituzten finantza aktiboak uzten direnean.

### **Finantza pasiboak**

Finantza pasiboak Sozietatearen zorrak edo ordaintzeko kontu sailak dira, ondasunak erosteagatik edo enpresaren trafiko eragiketengatik zerbitzuengatik sortuak (merkataritza eragiketek eragindako zorrak), edo, merkataritza jatorria izan gabe, finantza tresna eratorritzat jo ez daitezkeenak (Merkataritzakoak ez diren eragiketen eragindako zorrak).

Hasieran, zorrak eta ordaintzeko kontu sailak horiek arrazoizko balioa kontuan hartuta balioztatzen dira. Besterik adierazi ezean, arrazoizko balioa transakzioaren prezioa da, hau da, emandako kontraprestazioa, gehi zuzenean egotz dakizkiokeen transakzio kostuak. Ondoren, aktibo horiek amortizatutako kostua kontutan hartuta balioztatzen dira. Sortutako interesak galeren eta irabazien kontuan kontabilizatzen dira, interes tasa eraginkorraren metodoa ezarrita

Hala ere, urtebeteko epea gainditzen ez duten, kontratuaren arabeko interes tasa ez duten eta zenbatekoa epe laburrean jasotzea aurreikusten den merkataritza eragiketengatik zorrak (eta partaidetzagatik hirugarrengoen eskatutako ordainketak) balio izendatuaren arabera balioztatzen dira, esku diru fluxuak ez eguneratzeak eragin nabarmenik ez duenean.

### **Arrazoizko balioa**

Arrazoizko balioa transakzio bat elkarrekiko menpekotasun baldintzetan transakzioa egiten duten behar bezala informatutako alderdi interesatuek aktibo bat ordezkatzeko edo pasibo bat garbitzeko erabil dezaketen zenbatekoa da.

Oro har, arrazoizko balioaren arabera balioztatutako finantza tresnen balioespenean, Sozietateak merkatuko balio fidagarria erreferentziazat hartuta kalkulatu du arrazoizko balioa eta erreferentzia egokiena merkatu aktibo batean kotizatutako prezioa da. Merkatu aktiborik ez duten tresnei dagokienez, arrazoizko balioa balioespen ereduak eta teknikak aplikatuta lortzen da.

Merkataritza eragiketengatik kredituek eta zorrak liburuetan duten balioa arrazoizko balioaren antzekotzat jotzen da.

#### ***e) Izakinak-***

Izakinak erosketa prezioaren arabera balioztatzen dira. Erosketa prezioa saltzaileak fakturatutako zenbatekoa da, edozein deskontu, beherapen edo antzeko kontu sail eta zorren balio izendatuari erantsitako interesak kenduta eta ondasunak salmentarako prest egon arte sortzen diren kostu gehigarriak nahiz zuzenean izakinak erosteari egotz dakizkiokeen beste kostu batzuk gehituta.

Izakinei balio esleitzeko, Sozietateak FIFO metodoa erabiltzen du.

Produktu zaharkituen, produktu akastunen eta mugimendu geldiko produktuen balioztatzea gauzatze balio garbi posibleren murriztu da.

Izakinen balioaren zuzenketak eta lehengoratzak ordainketa gisa sartzen dira, “Produktu bukatuen eta fabrikatze bidean dauden produktuen izakinen aldaketa” eta “Hornidura” epigrafeetan, izakin motaren arabera.

**f) Esku dirua eta beste aktibo likido baliokide batzuk-**

Esku dirua eta beste aktibo likido baliokide batzuk kutxako esku dirua eta kreditu entitateetako ageriko banku gordailuak dira.

**g) Etekinen gaineko zerga-**

Etekinen zerga gaineko xahupenak edo diru sarrerak zerga arruntarengatik xahupena edo diru sarrerari dagokion zatia eta zerga geroratuarengatik xahupena edo diru sarrerari dagokion zatia hartzen ditu.

Zerga arrunta ekitaldi bateko etekinaren gaineko zergaren likidazio fiskalen ondorioz Sozietateak ordaintzen duen zenbatekoa da. Zergaren kuotan egiten diren kenketak eta beste abantaila batzuk, atxikipenak eta kontuarekiko ordainketak aintzat hartu gabe, eta, egongo balira, aurreko ekitaldikoak diren, ekitaldi honetan ezarri diren eta berdindu daitezkeen zerga galerak, zerga arruntaren zenbatekoa txikiagoa izatea eragiten dute. Etekinen gaineko zerga arruntarengatik aktiboak eta pasiboak ordaintzea edo zerga agintaritzatik berreskuratzea aurreikusten den zenbatekoaren arabera balioztatzen da, ekitaldiaren amaiera datan indarrean dauden, onartuta dauden eta argitaratzeko zain dauden araudia eta zerga tasak erabilita.

Bestalde, zerga geroratuengatik aktiboak, behin behineko alde kengarriak direnean, ez dira kontuan hartzen baldin eta Sozietateak etorkizunean horiei aurre egiteko adinako irabazi fiskalak izango dituela aurreikusten ez bada eta zerga emaitzari nahiz kontabilitate emaitzari eragiten ez dion eragiketa bateko beste aktibo eta pasibo batzuen hasierako onarpenetik badatoz. Zerga geroratuengatik gainerako aktiboak (zerga oinarri negatiboak eta berdintzeke dauden kenketak) Sozietateak etorkizunean horiei aurre egiteko adinako irabazi fiskalak edo pasiboak izango dituela aurreikusten denean soilik onartzen dira.

**h) Diru sarrerak eta xahupenak-**

Diru sarrerak eta xahupenak irabazkin irizpidearen arabera egozten dira, hau da, horiek adierazten duten ondasunen eta zerbitzuen korrante erreala gertatzen denean, horietatik eratorritako moneta edo finantza korrontea noiz gertatzen den gorabehera. Diru sarrerak jaso behar den kontraprestazioaren arrazoizko balioaren arabera balioztatzen dira eta jardueraren ohiko esparruan emandako ondasun eta zerbitzuengatik jaso behar diren zenbatekoak adierazten dituzte, deskontuak, itzultzeak, balio erantsiaren gaineko zerga eta salmentei lotutako beste zerga batzuk kenduta.

Salmentengatik diru sarreraren onarpena saldutako ondasunaren jabetzari dagozkion arriskuak eta irabaziak erosleari transferitzean egiten da, ez ondasun horren kudeaketa arruntari eutsita, ezta ondasunaren kontrol eraginkorrari eutsita ere.

**i) Kaleratze ordainsariak-**

Indarrean dagoen legeriaren arabera, Sozietatea lan harremana baldintza jakin batzuetan etetea erabakitzen duen langileei sariak ordaintzera derrigortuta dago. Beraz, arrazoiz kuantifikatu daitezkeen kaleratze ordainsariak xehupen gisa erregistratzen dira kaleratzea erabaki den ekitaldian. Honekin batera doazen urte kontuetan ez da hornidurarekin erregistratu azalpen horrengatik, ez baita horrelako egoerarik aurreikusten.

**j) Ingurumenari lotutako ondare elementuak-**

Ingurumenari loturako aktibotzat jotzen dira Sozietatearen jardueran luzaroan erabiltzen diren ondasunak, ingurumenaren gaineko eragina minimizatzea eta ingurumena babestea eta hobetzea xede dutenak, etorkizuneko kutsadura murriztea zein deuseztatzea barne.

Sozietatearen jarduerak berez ez du ingurumenaren gaineko eragin nabarmenik.

**k) Diru laguntzak, emaitzak eta legatuak-**

Itzulgarriak ez diren diru laguntzak, emaitzak eta legatuak, oro har, zuzenean ondare garbian egindako diru sarrera onartu gisa kontabilizatzen dira, horien kontzesio ofiziala lortzen denean eta kontzesiorako baldintzak bete direnean edo horiek jasotzeko arrazoizko dudarik ez dagoenean, eta galeren eta irabazien kontuan onartzen dira diru sarrera gisa eta horiek eragindako xahupenekin erlazionatuta.

Izaera monetarioa duten diru laguntzak, emaitzak eta legatuak emandako zenbatekoaren arrazoizko balioaren arabera balioztatzen dira, eta izaera monetario ez dutenak, jasotako aktiboaren arrazoizko balioaren arabera.

Itzulgarriak ez diren diru laguntzak, emaitzak eta legatuak emaitzei egozteko dagokien xedearen arabera egiten da.

**l) Lotetsitako alderdiekiko transakzioak-**

Urteko kontuetan aurkezteko, beste enpresa bat taldearen barruan dagoela joko da biak sozietate taldeentzako Merkataritza Kodeko 42. artikuluan aurreikusitakoaren antzekoa den kontrol harreman zuzenaren edo zeharkakoaren bidez lotuta daudenean, edo enpresak nola edo hala batera jarduten duten pertsona fisiko edo juridiko batek edo gehiagok kontrolatuta daudenean nahiz akordioen edo estatutu klausulen bidez zuzendaritza bakarraren gidaritzapean daudenean.

Urteko kontuak prestatzerakoan, Sozietatearen Bazkide Bakarra den Lauro Ikastola Kooperatiba Sozietate Mugatua taldearen enpresatzat jo da.

Taldeko enpresez gain, Sozietateari lotetsitako alderditzat jotzen dira Sozietatearen bozka eskubideetan nahiz egitura nagusian, zuzenean nahiz zeharka, parte hartzen duten pertsona fisikoak eta, beraz, batean zein bestean eragin nabarmena izateko aukera dutenak, horien hurbileko senitartekoak eta Sozietatearen zein egitura nagusiaren giltzarri diren langileak (zuzenean nahiz zeharka, enpresaren jardueren planifikazioan, zuzendaritzan eta kontrolean aginpidea eta erantzukizuna duten pertsona fisikoak), horien artean, Administrazioaileak eta Zuzendaritzako kideak, horien hurbileko senitartekoak eta aipatutako pertsonen eragin adierazgarria duten entitateak.

Halaber, lotetsitako alderditzat jotzen dira Sozietatearekin kontseiluko edo zuzendaritzako kideren bat partekatzen duten enpresak, kide horiek bi enpresen finantza eta ustiapen politiketan eragin adierazgarririk ez dutenean izan ezik, eta Sozietatearen Administrazioailearen pertsona fisikoaren, pertsona juridikoaren hurbileko senitartekoak.

Sozietateak lotetsitako alderdiekin burutzen dituen eragiketa guztiak merkatuko balioaren arabera egiten ditu. Sozietatearen Administrazioailearen arabera, zentzu honetan etorkizunean pasibo nabarmenak eragin ditzaketen arrisku adierazgarririk ez dago.

**m) Aktiboak eta pasiboak arruntetan eta ez arruntetan sailkatzea-**

Honekin batera doan egoera balantzean, balantzeak arruntetan eta ez arruntetan sailkatuta daude. Balantza arruntetan Sozietateak ustiapen ziklo arruntetan saltzea, kontsumitzea, ematea eta burutzea espero duen balantzak daude. Sailkapen horri ez dagozkion gainerako balantzak ez arruntzat jotzen dira.

**(5) Ibilgetu ukiezina eta materiala**

**a) *Ibilgetu ukiezina-***

Honekin batera doan egoera balantzearen “Ibilgetu ukiezina” epigrafeak jasotzen dituen kontuetan 2022ko eta 2021eko ekitaldietan gertatutako mugimenduak hauek dira:

|                             | Euros          |                |               |               |                |                |
|-----------------------------|----------------|----------------|---------------|---------------|----------------|----------------|
|                             | Saldoa         | Saldoa         | Gehitzeak edo | Gehitzeak edo | Saldoa         | Saldoa         |
|                             | 22.01.01ean    | 21.01.01ean    | Zuzkidurak    | Zuzkidurak    | 22.08.31n      | 21.12.31n      |
|                             | 2022           | 2021           | 2022          | 2021          | 2022           | 2021           |
| <b>KOSTUA:</b>              |                |                |               |               |                |                |
| Jabetza Industrialak        | 2.246          | 2.246          |               |               | 2.246          | 2.246          |
| Aplikazio informatikoak     | 819            | 819            |               |               | 819            | 819            |
|                             | -              | -              | -             | -             |                |                |
|                             | <u>3.065</u>   | <u>3.065</u>   | <u>-</u>      | <u>-</u>      | <u>3.065</u>   | <u>3.065</u>   |
|                             | -              | -              | -             | -             |                |                |
| <b>AMORTIZAZIO METATUA:</b> |                |                |               |               |                |                |
| Jabetza Industrialak        | (1.708)        | (1.477)        | (154)         | (231)         | (1.862)        | (1.708)        |
| Aplikazio informatikoak     | (819)          | (819)          | -             | -             | (819)          | (819)          |
|                             | -              | -              | -             | -             |                |                |
|                             | <u>(2.527)</u> | <u>(2.297)</u> | <u>(154)</u>  | <u>(231)</u>  | <u>(2.681)</u> | <u>(2.527)</u> |
| <b>GARBIA:</b>              |                |                |               |               |                |                |
| Jabetza Industrialak        | 538            | 769            | -             | -             | 384            | 538            |
| Aplikazio informatikoak     | -              | -              | -             | -             | -              | -              |
|                             | <u>538</u>     | <u>769</u>     | <u>-</u>      | <u>-</u>      | <u>384</u>     | <u>538</u>     |

**b) Ibilgetu materiala-**

Honekin batera doan egoera balantzearen “Ibilgetu materiala” epigrafeak jasotzen dituen kontuetan 2022ko eta 2021eko ekitaldietan gertatutako mugimenduak hauek dira:

|                                              | Euroak      |             |               |               |           |           |
|----------------------------------------------|-------------|-------------|---------------|---------------|-----------|-----------|
|                                              | Saldoa      | Saldoa      | Gehitzeak edo | Gehitzeak edo | Saldoa    | Saldoa    |
|                                              | 22.01.01ean | 21.01.01ean | Zuzkidurak    | Zuzkidurak    | 22.08.31n | 21.12.31n |
|                                              | 2022        | 2021        | 2022          | 2021          | 2022      | 2021      |
| <b>KOSTUA:</b>                               |             |             |               |               |           |           |
| Lursailak eta eraikuntzak                    |             |             |               |               |           |           |
| Eraikuntzak                                  | 52.599      | 52.599      | 1.587         | -             | 54.186    | 52.599    |
| Instalazio teknikoak-beste ibilg. material b | -           | -           | -             | -             | -         | -         |
| Makineria                                    | 52.362      | 31.569      | 12.040        | 20.793        | 64.402    | 52.362    |
| Tresnak                                      | 70.915      | 59.028      | 2.936         | 11.887        | 73.851    | 70.915    |
| Altzariak                                    | 24.463      | 24.463      | 4.500         | -             | 28.963    | 24.463    |
| Informazioa prozesatzeko ekipak              | 6.019       | 6.019       | 598           | -             | 6.617     | 6.019     |
|                                              | 153.759     | 121.079     | 20.074        | 32.681        | 173.833   | 153.759   |
|                                              | 206.358     | 173.678     | 21.661        | 32.681        | 228.020   | 206.358   |
| <b>AMORTIZAZIO METATUA:</b>                  |             |             |               |               |           |           |
| Lursailak eta eraikuntzak-                   |             |             | -             |               |           |           |
| Eraikuntzak                                  | (9.831)     | (8.516)     | (906)         | (1.315)       | (10.737)  | (9.831)   |
| Instalazio teknikoak-beste ibilg. material b | -           | -           | -             | -             | -         | -         |
| Makineria                                    | (15.556)    | (11.870)    | (3.435)       | (3.686)       | (18.991)  | (15.556)  |
| Tresnak                                      | (46.619)    | (42.243)    | (3.397)       | (4.376)       | (50.016)  | (46.619)  |
| Altzariak                                    | (17.003)    | (14.516)    | (1.752)       | (2.487)       | (18.756)  | (17.003)  |
| Informazioa prozesatzeko ekipak              | (5.924)     | (5.850)     | (121)         | (74)          | (6.045)   | (5.924)   |
|                                              | (85.102)    | (74.479)    | (8.705)       | (10.623)      | (93.807)  | (85.102)  |
|                                              | (94.933)    | (82.994)    | (9.612)       | (11.938)      | (104.544) | (94.933)  |
| <b>GARBIA:</b>                               |             |             |               |               |           |           |
| Lursailak eta eraikuntzak-                   |             |             | -             |               |           |           |
| Eraikuntzak                                  | 42.768      | 44.083      | 681           | (1.315)       | 43.449    | 42.768    |
| Instalazio teknikoak-beste ibilg. material b | -           | -           | -             | -             | -         | -         |
| Makineria                                    | 36.806      | 19.699      | 8.605         | 17.107        | 45.411    | 36.806    |
| Tresnak                                      | 24.296      | 16.785      | (461)         | 7.511         | 23.835    | 24.296    |
| Altzariak                                    | 7.460       | 9.947       | 2.748         | (2.487)       | 10.207    | 7.460     |
| Informazioa prozesatzeko ekipak              | 95          | 169         | 477           | (74)          | 572       | 95        |
|                                              | 68.657      | 46.600      | 11.368        | 22.057        | 80.026    | 68.657    |
|                                              | 111.426     | 90.684      | 12.049        | 20.742        | 123.475   | 111.426   |

Guztira Aktibo ez korrante ondoko izanik:

|                            | Euroak      |             |               |               |           |           |
|----------------------------|-------------|-------------|---------------|---------------|-----------|-----------|
|                            | Saldoa      | Saldoa      | Gehitzeak edo | Gehitzeak edo | Saldoa    | Saldoa    |
|                            | 22.01.01ean | 21.01.01ean | Zuzkidurak    | Zuzkidurak    | 22.08.31n | 21.12.31n |
|                            | 2022        | 2021        | 2022          | 2021          | 2022      | 2021      |
| AKTIBO EZ KORRANTE GUZTIRA | 111.964     | 91.452      | 11.896        | 20.512        | 123.860   | 111.964   |

2022eko ekitaldiko erosketak nagusiak eraikuntza eta instalazioetako hobekuntzei dagozkie (kubiertara igotzeko leihoren berritzea, igerilekuko hondar-filtroak, mugikorrekin manipulatzeko intrusio-sistema, 2700 lumeneko proiektoreko 4 larrialdi-multzo kiroldegiko pistetan, ekitaldietarako pista estaltzen duen alfonbra gordetzeko burdinezko apalak, eta kirol-arduradunaren inprimagailua.).

Sozietateak hainbat aseguru poliza dauzka kontratatuta, ibilgetu materialaren elementuen balizko arriskuak estaltzeko. Poliza horien estaldura nahikotzat jotzen da.

Sozietatearen ibilgetu materiala osatzen duten elementuak ez daude inolako kargari eta zergari lotuak.

Sozietatea ez da bere jarduera burutzen den kirol instalazioen jabea. Instalazioak alokairu eraginkorreko erregimenean erabiltzen dira, urtero formalizatzen den eta epea amaitzean luza daitekeen kontratu baten bidez. 2022ko abuztuaren 31n amaitutako ekitaldian instalazioen alokairuarengatik sortutako zenbatekoa, merkatuko balioak kontuan hartuta, 38.585,52 eurokoa izan da eta honekin batera doan irabazien eta galeren kontuko “Beste ustiapen xahupen batzuk” epigrafean erregistratuta dago. Egoitza horien errentamenduagatik ordaindutako kuotak urtero berritzen dira.

Sozietatearen Administrazioaile Bakarraren arabera, aipatutako kontratu epea amaitzean berrituko da eta epea nahikoa izango da industria pabilioi horretako instalazioetan egin den inbertsioa ekitaldi bakoitzeko amortizaziorako diru horniduraren bidez berreskuratzeko.

(6) **Finantza aktiboak sailka**

***Finantza aktibo sailak-***

2022ko abuztuaren 31an eta 2021eko abenduaren 31n, hau zen finantza aktiboen mailakako eta sailkako sailkapena, esku dirua eta beste aktibo baliokide batzuk aintzat hartu gabe (10. oharra), eta horiek liburuetan duten balioa:

| Kategoriak                                    | Salementengatiko<br>eta zerbitzuak<br>emateagatiko<br>bezeroak | Hainbat<br>zordun | Beste kreditu<br>batzuk<br>Herri<br>Administrazioekin | Guztira   |
|-----------------------------------------------|----------------------------------------------------------------|-------------------|-------------------------------------------------------|-----------|
| Maileguak eta kobratu beharreko partidak 2022 | (2.495)                                                        | 2.569             | 67.877                                                | 67.952    |
| Maileguak eta kobratu beharreko partidak 2021 | (117.715)                                                      | (9.775)           |                                                       | (127.490) |

Sozietatearen Administrazioaile Bakarraren arabera, goiko taulan zehaztutako finantza aktiboen liburuetako zenbateko arrazoizko baliotik hurbil dago.

(7) **Izakinak**

2022ko abuztuaren 31n eta 2021eko abenduaren 31n, hau da honekin batera doan egoera balantzearen aktiboaren osaera:

|               | Euro   |
|---------------|--------|
| Salgaiak 2022 | 33.161 |
| Salgaiak 2021 | 23.103 |

Honekin batera doan egoera balantze laburtuaren epigrafe honek, funtsean, kirol arropari, botikineko materialari eta lehengaiei, hala nola gasolioari, bromoari eta PHari, dagozkien ekitaldi amaierako izakinak jasotzen ditu.

Ekitaldiaren amaieran, izakinen epigrafean ez dira balioespen zuzenketa mugimenduak erregistratu.

(8) **Finantza tresnen izaerari eta arrisku mailari buruzko informazioa**

***Informazio kualitatiboa-***

Sozietatearen finantza arriskuen kudeaketa Lauro Kooperatiba Sozietate Mugatuaren Finantza Zuzendaritzan zentralizatuta dago. Finantza Zuzendaritzak interes tasetan eta aldaketa tasetan gertatzen diren aldaketen eta kreditu eta likidezia arriskuen eragina kontrolatzeko mekanismoak ezarrita dauzka. Ondoren, Sozietateari eragiten dioten arrisku nagusiak biltzen dira:

a) Kreditu arriskua:

Orokorki, Sozietateak altxortegia eta aktibo likido baliokideak kreditu maila altuko entitateetan dauzka.

b) Likidezia arriskua:

Likidezia ziurtatzeko eta jarduerak eragiten dituen ordainketa konpromiso guztiei aurre egin ahal izateko, Sozietateak balantzeak adierazten duen altxortegia dauka. Halaber, unean uneko finantzaketa eman dakioke Bazkide Bakarrak.

c) Merkatu arriskua (interes eta aldaketa tasaren arriskua eta prezioen beste arrisku batzuk barne):

Interes tasaren arriskuak Sozietatearen altxortegiari eragin diezaioke, eragin kaltegarria izan baitezake finantza emaitzetan eta kutxaren fluxuan.

(9) **Epe laburreko periodifikazioa**

Aurretiazko diru irteerak dira. Sortu ez direnak, baina bai fakturatzeko edo horren eskubidea dagoenean, bai kontsumitu ez direlako edota kontratatutako zerbitzua oraindik burutu ez delako.

|                              | Euro      | Euro    |
|------------------------------|-----------|---------|
|                              | Aseguruak | Guztira |
| Aurretiazko ordainketak 2022 | 81        | 81      |
| Aurretiazko ordainketak 2021 | 2.326     | 2.326   |

(10) **Esku dirua eta beste aktibo likido baliokide batzuk**

Honekin batera doan 2022ko abuztuaren 31 eta 2021eko abenduaren 31ko egoera balantzearen epigrafean, hauxe da balantzaren osaera:

|                                                 | Euro   |
|-------------------------------------------------|--------|
| Bankuak eta kreditu erakundeak-<br>k/k BBK 2022 | 3.149  |
|                                                 | 3.149  |
| Bankuak eta kreditu erakundeak-<br>k/k BBK 2021 | 42.213 |
|                                                 | 42.213 |

Guztien eskura dagoen kontu korrontea, merkatuko interes tasetan oinarrituta kontratatuta dago, eta ekitaldian ez dira finantza sarrerak sortu.

(11) **Funts propioak**

2022ko abuztuaren 31 eta 2021eko abenduaren 31n amaitutako urte ekitaldietan, “Funts Propioak” epigrafean mugimendu hau egon da:

|                                    | Euro                    |                               |                           |                                   |                       |
|------------------------------------|-------------------------|-------------------------------|---------------------------|-----------------------------------|-----------------------|
|                                    | Kapital<br>Eskrituratua | Nahitezko<br>Erreserba-Funtsa | Beste erreserba<br>batzuk | Aurreko ekitaldietako<br>emaitzak | Ekitaldiko<br>emaitza |
| 2021eko abenduak 31ko saldoa       | 90.000                  | -                             | -                         | (4.513)                           | 6.224                 |
| Aurreko urteko emaitza ezartzea    | -                       | 819                           | 892                       | 4.513                             | (6.224)               |
| Lauro bazkideen ekarpenak P. eros. | -                       | -                             | -                         | -                                 | -                     |
| Aurtengo ekitaldiko emaitza        | -                       | -                             | -                         | -                                 | 268                   |
| 2022ko abuztuak 31ko saldoa        | <u>90.000</u>           | <u>819</u>                    | <u>892</u>                | <u>-</u>                          | <u>268</u>            |

|                                    | Euro                    |             |             |                                   |                       |
|------------------------------------|-------------------------|-------------|-------------|-----------------------------------|-----------------------|
|                                    | Kapital<br>Eskrituratua | Erretserbak | Erretserbak | Aurreko ekitaldietako<br>emaitzak | Ekitaldiko<br>emaitza |
| 20220ko abenduak 31ko saldoa       | 90.000                  | -           | -           | (16.709)                          | 12.196                |
| Aurreko urteko emaitza ezartzea    | -                       | -           | -           | 12.196                            | (12.196)              |
| Lauro bazkideen ekarpenak P. eros. | -                       | -           | -           | -                                 | -                     |
| Aurtengo ekitaldiko emaitza        | -                       | -           | -           | -                                 | 268                   |
| 2021eko abenduak 31ko saldoa       | <u>90.000</u>           | <u>-</u>    | <u>-</u>    | <u>(4.513)</u>                    | <u>268</u>            |

***Kapitala-***

2022ko abuztuaren 31n, kapital soziala 90.000 partaidetza sozialek osatzen zuten, bakoitza euro bateko balio izendatua duena eta guztiak Lauro Ikastola Kooperatiba Sozietate Mugatuak harpidetuak eta ordainduak.

2021eko abenduaren 31n, kapital soziala 90.000 partaidetza sozialek osatzen zuten, bakoitza euro bateko balio izendatua duena eta guztiak Lauro Ikastola Kooperatiba Sozietate Mugatuak harpidetuak eta ordainduak.

(12) **Finantza-pasiboak kategoriak**

Finantza pasibo sailak-

2022ko abuztuaren 31n eta 2021eko abenduaren 31n, finantza pasiboen sailkako eta mailakako sailkapena eta liburutetan horiek eurotan duten balioa honako hau da:

| Kategoriak                                       | Merkataritza hartzekodunak<br>eta ordaindu beharreko<br>beste kontu batzuk |          | Guztira  |
|--------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------------------|----------|----------|
|                                                  |                                                                            |          |          |
| Zordun eta ordaindu behar partidak 2022          |                                                                            | 136.223  | 136.223  |
| Zordunketak eta ordaindu beharreko partidak 2021 |                                                                            | (58.273) | (58.273) |

Sozietatearen Administrazioaile Bakarraren arabera, “Zorrak eta ordaintzeko kontu sailak” epigrafeak liburutetan duen zenbatekoa arrazoizko balioaren antzeko da.

2022ko abuztuaren 31n, honekin batera doan egoera balantze laburtuaren “Merkataritza hartzekodunak eta ordaintzeko beste kontu batzuk” epigrafean, 68.330euroko zenbatekoa du erregistratua. “Beste hartzekodun batzuk” kontuan, 62.298euroko zenbatekoa administrazio zorretan eta 3.544euro ordainketa pendienteetan eta zergetan 2.050 euro, guztira 136.223euro.

2021eko abenduaren 31n, honekin batera doan egoera balantze laburtuaren “Merkataritza hartzekodunak eta ordaintzeko beste kontu batzuk” epigrafean, 101.993euroko zenbatekoa du erregistratua. “Beste hartzekodun batzuk” kontuan, -173.101euroko zenbatekoa administrazio zorretan (BEZaren erredukzioagatik) eta 10.870euro ordainketa pendienteetan eta zergetan 1.965 euro, guztira -58.273euro.

(13) **Hornitzaileei egindako ordainketa atzerapenei buruzko informazioa. Hirugarren xedapen gehigarria. "Informatzeko Beharra" uztailak 5eko 15/2010 legea.**

2022ko abuztuak 31n hornitzaileei legeak ezarritakoa baino epe luzeagoan ordaintzeke dagoen saldoa 24.489eurokoa da.

(14) **Epe laburreko periodifikazioa**

Aurretiazko diru sarrerak dira. Sortu ez direnak, baina bai kobrantza edo horren eskubidea dagoenean, bai kontsumitu ez direlako edota kontratatutako zerbitzua oraindik burutu ez delako.

|                                | Euro          | Euro    |
|--------------------------------|---------------|---------|
|                                | Eskola kirola | Guztira |
| Aurretiazko diru sarrerak 2022 | -             | -       |
| Aurretiazko diru sarrerak 2021 | 18.679        | 18.679  |

(15) **Lotetsitako alderdiekiko eragiketak eta balantzak**

***Lotetsitako alderdiekiko balantzak-***

2022ko abuztuaren 31n eta 2021eko abenduaren 31n, honekin batera doan egoera balantzearen aktiboan eta pasiboan jasota dauden taldearen enpresekiko balantzen xehetasunak hauek dira:

|                               | Euro                     |               |
|-------------------------------|--------------------------|---------------|
|                               | Korrontea                |               |
|                               | Merkataritza<br>zordunak | Hornitzaileak |
| Lauro Ikastola S.C. Ltd. 2022 | (4.338)                  | 24.036        |
| Lauro Ikastola S.C. Ltd. 2021 | (119.125)                | 19.679        |

***Lotetsitako alderdiekiko eragiketak-***

Hauek dira 2022ko eta 2021eko ekitaldietan loturadun erakundeekin egin diren eragiketa nagusiak:

| Erakundea                    | Euro                 |                       |
|------------------------------|----------------------|-----------------------|
|                              | Zerbitzuak<br>ematea | Kanpoko<br>zerbitzuak |
| Lauro Ikastola S.C.Ltd. 2022 | 332.192              | (38.586)              |
| Lauro Ikastola S.C.Ltd. 2021 | 383.294              | (47.626)              |

***Administratzaile Bakarraren eta goi zuzendaritzaren ordainsariak eta beste sari batzuk-***

2022ko ekitaldian Sozietatearen Administratzaile Bakarrak eta goi zuzendaritzako langileek ez dute saririk jaso, ez dute aurrerapenik ez krediturik eta horien kontura ez da berme gisa obligaziorik hartu. Halaber, Sozietateak ez du obligaziorik Sozietatearen Administrazio Organoko oraingo naiz iraganeko kideen eta goi zuzendaritzako oraingo eta iraganeko langileen pentsioei eta bizi aseguruiei dagokienez.

(16) **Zerga egoera**

2022ko abuztuaren 31n eta 2021eko abenduaren 31n, Administrazio Publikoekiko balantzek azalpen hauek jasotzen dituzte:

|                                                         | Euro    |      | Euro           |         |
|---------------------------------------------------------|---------|------|----------------|---------|
|                                                         | Zorduna |      | (Hartzekoduna) |         |
| Korrontea-                                              | 2022    | 2021 | 2022           | 2021    |
| Beste kreditu batzuk (zorrak) Herri Administrazioekin   |         |      |                |         |
| Herri Ogasuna, BEZagatik                                | -       | -    | -              | 181.933 |
| Herri Administrazio zordunak Diru lag.gatik             |         |      | -              | -       |
| Egindako atxikipenak Pertsona Fisikoen                  |         |      |                |         |
| errentaren gaineko zergagatik                           | -       | -    | (3.442)        | (2.737) |
| Gizarte Segurantzako organismoak aurtengo urteko abend. | -       | -    | (2.019)        | (6.096) |
| Sortutako BEZ                                           | -       | -    | (56.837)       | -       |
|                                                         | -       | -    | (62.298)       | 173.101 |

***Sozietateen gaineko zerga-***

2022ko abuztuaren 31an eta 2021eko abenduaren 31an amaitutako ekitaldien zergen aurreko kontabilitate-emaizak bat egiten du ekitaldirako Sozietateen gaineko Zergaren oinarri zergagarriarekin.

2022ko abuztuaren 31n konpentsatzeko zain dauden oinarri zergagarri negatiboen zenbatekoak, konpentsatzeko legezko gehienezko epea ekitaldiaren itxieratik 15 urte igaro arte izanik, 0 eurokoak dira (4.513 eurokoak 2021ekoa abenduaren 31n).

2022ko abuztuaren 31n eta 2021eko abenduaren 31n, aurreko kreditu fiskalei buruzko zerga geroratuagatik aktiboak ez dira erregistratu eransten den balantzean.

Indarrean dagoen legeriak ezartzen duen arabera, zergak ezin dira behin betiko likidatutzat jo aurkeztu diren aitortpenak agintari fiskalek ikuskatzen dituzten arte, edo lau urteko preskripzio-epea igaro arte Sozietatearen Administrazioaren iritziz, ez da etorkizuneko ikuskapenetik eratorritako pasibo fiskalik espero eta, ondorioz, eransten diren 2022ko abuztuaren 31n eta 2021eko abenduaren 31n amaitutako urteko ekitaldien urteko kontuek ez dute kontzeptu horretan hornidurarik islatzen.

Zerga geroratuengatiko aktiboen xehetasunak ez daude honekin batera doan egoera balantzean erregistratuta, etorkizunean horiek berreskuratzea ez delako aurreikusten, ezta horiei dagozkien, kitatzeke dauden eta kitatzeko azken eperik ez duten zerga oinarriak ere. 2022ko abuztuaren 31n, hauek dira oinarri horien xehetasunak:

| Urtea | Euro    |
|-------|---------|
| 2004  | -63.852 |
| 2005  | -18.703 |
| 2006  | 787     |
| 2007  | -14.361 |
| 2008  | -2.676  |
| 2009  | 1.664   |
| 2010  | 2.239   |
| 2011  | 1.659   |
| 2012  | 3.545   |
| 2013  | 452     |
| 2014  | -4.534  |
| 2015  | 551     |
| 2016  | 248     |
| 2017  | 5.578   |
| 2018  | 1.100   |
| 2019  | 168     |
| 2020  | 12.196  |
| 2021  | 6.224   |
| 2022  | 268     |

Bestalde, zerga geroratuengatiko aktiboak ez daude honekin batera doan egoera balantzean erregistratuta, etorkizunean berreskuratzea ez delako aurreikusten ezta horiei dagozkien, aplikatzeke dauden eta aplikatzeko eperik ez duten kenketak ere. 2022ko abuztuaren 31n, hauek dira aktibo horien xehetasunak:

| Urtea | Euro          |
|-------|---------------|
| 2008  | 1.188         |
| 2009  | 1.212         |
| 2010  | 1.292         |
| 2011  | 1.335         |
| 2012  | 1.820         |
| 2013  | 2.070         |
| 2014  | 1.071         |
| 2015  | 1.852         |
| 2016  | 2.840         |
| 2017  | 2.081         |
| 2018  | 2.139         |
| 2019  | 530           |
| 2020  | 678           |
| 2021  | 3.002         |
| 2022  | 235           |
|       | <u>23.345</u> |

Indarrean dagoen legeriak ezartzen duenez, zergak ezin dira erabat kitatutzat jo zerga agintaritzak aurkeztutako aitopenak ikuskatu arte, edo lau urteko baliogabetze epea gainditu arte. Sozietatearen Administrazioaile Bakarraren arabera, ikuskaritza egonez gero, ez dira pasibo gehigarri adierazgarriak sortuko.

(17) **Diru sarrerak eta xahupenak**

Ondoren, honekin batera doan emaitza kontuaren hainbat epigrafetako informazioa ematen da:

***Negozio zifraren zenbateko garbia-***

Honekin batera doan galeren eta irabazien kontuko epigrafe honek, nagusiki, Sozietateak 2022ko ekitaldian, funtsean, Lauro Ikastola Kooperatiba Sozietate Mugatuari emandako kirol jarduera zerbitzuak biltzen ditu.

***Hornidurak-***

Epigrafe honek kirol material suntsikorra erosteak eta kontratazioek (guztiak estatuaren barruan eginak) eragindako xahupena jasotzen du.

2022ko abuztuaren 31an eta 2021eko abenduaren 31n, hauxe zen epigrafe honen banakatzea:

|                        | Euro    |         |
|------------------------|---------|---------|
|                        | 2022    | 2021    |
| Erosketak              | 22.191  | 14.623  |
| Kanp. beste gastu btzk | 131.172 | 122.038 |
|                        | 153.362 | 136.662 |

***Ekitaldiko emaitzari erantsitako ustiapen diru laguntzak eta emaitzak-***

Athletic Clubek 6.673,31euroko diru laguntza eman zion Sozietateari, 2022 urteari dagokiona (urtarriletik abuztura).

***Gizarte Zergak-***

Gizarte Segurantzaren Erakundearen aldeko nagusien kuotei dagozkien gizarte zergen zenbatekoa. Sozietateak ez du langileekin inolako konpromisorik hartu pentsioentzako edo antzekoentzako diru hornidurak derrigortzen dituenik.

(18) **Ingurumenari buruzko informazioa**

Oro har, Sozietatearen jarduerak ez diote ingurumenari kalterik eragiten eta, ondorioz, kalte horiek arintzeko kostu eta inbertsio adierazgarriak ez dago.

(19) **Bestelako informazioa**

***Langileak-***

Hauxe da 2022ko eta 2021eko ekitaldietako batez besteko langile kopurua, mailaka:

| <u>Kategoria Profesionala</u> | <u>Langileak</u> |           |
|-------------------------------|------------------|-----------|
|                               | 2022             | 2021      |
| Negoziatu burua               | 1                | 1         |
| Entrenatzaileen arduraduna    | 3                | 3         |
| Entrenatzailea                | 20               | 19        |
| Instalazioetako ofiziala      | 1                | 1         |
|                               | <u>25</u>        | <u>24</u> |

Horrez gain, 3/2007 Lege Organikoak eskatzen duena beteta, 2022ko abuztuaren 31ko eta 2021eko abenduaren 31ko Sozietatearen langileen sexuaren araberako banaketa jaso da, sailka eta mailaka xehatuta:

| <u>Kategoria</u>           | <u>Gizon kop.</u> |           | <u>Emakume kop.</u> |          | <u>Guztira</u> |           |
|----------------------------|-------------------|-----------|---------------------|----------|----------------|-----------|
|                            | 2022              | 2021      | 2022                | 2021     | 2022           | 2021      |
| Negoziatu burua            | 1                 | 1         | -                   | -        | 1              | 1         |
| Entrenatzaileen arduraduna | 3                 | 3         | -                   | -        | 3              | 3         |
| Entrenatzailea             | 12                | 12        | 8                   | 7        | 20             | 19        |
| Instalazioetako ofiziala   | -                 | -         | 1                   | 1        | 1              | 1         |
|                            | <u>16</u>         | <u>16</u> | <u>9</u>            | <u>8</u> | <u>25</u>      | <u>24</u> |

**BEHEKOSOLOA XXI, SM PERTSONA BAKARREKOA**  
**2022KO EKITALDIKO KUDEAKETA TXOSTENA (urtarrilatik abuztura)**

**Galeren eta Irabazien Kontua-**

Ekitaldi honen amaieran Sozietateak 268 euroko mozkina izan du.

Behekosoloa XXI enpresak hiru zerbitzu eskaintzen ditu: Eskolarra, Eskola Kirola eta Hirugarrenentzako zerbitzuak. Eskolarra eta Eskola Kiroletan, bere bezero bakarra Lauro Ikastolako ikasleak dira eta bere helburu nagusia partaidetza da. Hirugarren zerbitzuen bezeroak aldiz, eskola ordutik kanpo erabili dezakete eta Behekosoloak ateratzen duen etekina beste bi zerbitzuak finantzatzeko erabiltzen da.

Zerbitzu eskolarren eta eskola kirolean emaitza hobeagoa izan da aurreko urtearekiko, baina ez aurrekontuarekiko, batez ere argia, ura, gasolioa eta bromoaren horniduragatik. Kontsumoa eta prezioaren igoera.

Eta hirugarren zerbitzuetan emaitza aurreko urtekoa eta aurrekontua baino txarragoa izan da.

Nahiz eta ikastaroetan eta alokairuetan emaitza hobeagoak lortu, udako kanpusetan erabiltzaile kopurua jaitsi egin da.

22/23 ikasturtetik aurrera, Behekosoloak Laurori fakturatzen zion kirol zerbitzuagatik kuota Lauroko ikasle guztiei zuzenean fakturatzen hasiko da.

**Balantzea-**

Aktiboa eta Pasiboa 228.201 eurotakoa da eta sailkapena ondokoa da:

Aktiboan:

- Aktiboa ez korrontea 123.860 eurotakoa, 2021ean baino 11.896 euro gehiago, egindako inbertsioengatik, igerilekuko hondar-filtroak, intrusio sistema eta burdinezko apalak.
- Aktibo Korrontea 104.341 eurotakoa, 2021ean baino 164.189 euro gehiago, salmentengatik eta zerbitzuak emateagatik bezeroen kobratu beharreko partiden igoeragatik eta beste kreditu batzuk administrazio publikoekin (2022ko BEZaren itzulketa).  
Atal honetan 2021.urtean Behekosoloak Laurori egin beharreko itzulketa dago, balio erantsiaren gaineko zergaren tratamendua berrikusteagatik.  
Behekosoloak Laurori eskolako eta eskolaz kanpoko zerbitzuagatik egiten zizkion fakturak %21eko BEZa zuten, baina aholkulariei egindako kontsulta baten ondoren, %10ean egin daitezkeela jakinarazi ziguten, eta, beraz, faktura zuzentzaileak igorri ziren 2017ko urritik.

Pasiboan:

- Funts propioak 91.778 eurokoak dira. 2021ean baino 268 euro gehiago, aurreko ekitaldietako emaitza negatiboak behera egin duelako eta erretserben igoeragatik.
- Pasibo korrontea 136.223 eurokoa da. 2021ean baino 175.817 euro gehiago, batez ere administrazio publikoarekiko zorrak gora egin duelako (2021.urtean Laurori BEZa aldatzeagatik fakturen zuzenketak), nahiz eta hornitzaileek behera egin duten.

---

Loiu, 2022ko azaroaren 24an

**Behekosoloa XXI SM Pertsona bakarrekia**

**Idoia Iruretagoiena Valle And.**

*(Administratzaile bakarra ordezkatzeko duen  
pertsona fisikoa)*

---

## **BEHEKOSOLOA XXI, SM PERTSONA BAKARREKOA**

### **2022KO EKITALDIKO URTEKO KONTUEN ETA KUDEAKETA TXOSTENAREN ADIERAZPENA (urtarrilatik abuztura)**

Behekosolua XXI, SM Pertsona bakarreko sozietateko administratzaileak, 2022ko azaroaren 24an, Merkataritza Sozietateen Legeak ezarritako eskakizunak beteaz, idatzi honen aurretik erantsitako dokumentuek osatutako 2022ko abuztuaren 31n amaitutako urteko ekitaldiko Urteko kontuak eta Kudeaketa Txostena adierazteari ekiten dio.

### **SINATZAILEAK**

---

Loiu, 2022ko azaroaren 24an

**Behekosolua XXI SM Pertsona bakarrekoa**

**Idoia Iruretagoiena Valle And.**

*(Administratzaile bakarra ordezkatzeko duen  
pertsona fisikoa)*

---